

## Zarautzen, 1996ko apirilaren 26an (Goizekoa)

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
Knörr, E., idazkaria  
Altuna, P.  
Azkarate, M.  
Charritton, P.  
Davant, J.L.  
Diharce, X.  
Goenaga, P.  
Irigoyen, A.  
Kintana, X.  
Krutwig, F.  
Larre, E.  
Oihartzabal, B.  
Ondarra, P.  
Salaburu, P.  
San Martin, J.  
Sarasola, I.  
Villasante, L.  
Zabaleta, P.

Lizundia, J.L., idazkariordea  
Zearreta, J.J., ekonomia eragilea

Zarauzko udaletxean, 1996ko apirilaren 26an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren ki-deak etorri dira. J.A. Aranak, Tx. Peillenek eta J.M. Satrustegik beren ezin etorria adierazi dute.

### Agiria

Martxoko agiria onartu da, zenbait zuzenketarekin.

### Marcellin Hegiaphal eta Jose Basterretxea

Gaietan sartu baino lehen, euskaltzainburuak Marcellin Hegiaphal zuberotar urgazle eta idazlearen heriotzaren berri eman du. Sohütakoa zen Hegiaphal jauna, 1910ean sortua. Jean Haritschelhar eta Jean-Louis Davant izan ziren ehorzketan. Davant jaunak irakurriko du hurrengo batzar batean hilberri-txostena. Besteak beste, gogorarazi du Hegiaphal jauna Euskal Herriko Hizkuntza Atlaserako lekukoa izan zela, Sohütako hizkerari buruz.

Jose Basterretxea "Oskillaso" bizkaitar urgazle eta idazlea ere hil dela esan du Jean Haritschelharrek. Jose Antonio Aranak egingo du hari buruzko txostena.

### Araukak

*Bidaro* hitzetik *bizartsu* hitzeraino aztertu dute egungo batzarrean euskaltzainek. Endrike Knörrrek eta Juan San Martinek igorri dituzte hitz-sail honen gainean beren oharrak. Haietako batzuk onartu dira: zerrendan falta zen *bide-sari*, adibidez, agertuko da; *bisaje* hitzari *herr*. marka erantsi zaio; *bisitazio* hitza ere sartu da, Andre Dona Mariak Elizabet lehengusinari egindakoa adierazteko, adibidez; *bistaz ezagutu* esapidea ere sartzeari oiniritzi zaio. Beste ohar batzuk, berriz, ez dira onetsi. *Bidarri* hitza, esaterako, geroko hiztegi batean sartuko litzateke, eta *billete* zerrendan utziko da, baina "dirupa-

pera” adierarekin. Batzordeak eztabaidarako ekarri *bikor* / *pikor* aldaeretatik bigarrena onartzea erabaki da aho batez, testuetan duen nagusitasuna kontuan harturik.

Hurrengo batzarrean *b* letra bukatzea nahi du batzordeak, P. Salaburuk esan duenez. Exonomastikaren alorreko erabakizunak, aldiz, egungo gai-zerrendan zirenak, geroko utzi dira. Horren ordez, Onomastika batzordeak apirileko batzarrean onarturiko *Euskal probintzien, herritarren eta euskalkien izenak* deritzan txostena, Euskara Batuko batzordera pasea, aztertu da. Aurkezpena E. Knörr Onomastika batzordeburuak egin du eta P. Salaburu Euskara Batuko batzordeburuak adierazi du zein ziren proposaturiko aldatetak.

*Giputz* hitzaren inguruan izan da eztabaida luzeena. P. Zabaleta hitza kentzearen alde agertu da. Azkenean, *gipuzkoar* deiturari nagusigoa aitortu arren, *giputz* ere utziko da, euskalkiarekin loturiko bere esanahiarekin. Bestalde, B. Oihartzabalek horrela eskaturik, pertsonak izendatzeko *goi-nafar* eta *behe-nafar* deiturak kendu dira, gentilizioekin *goi-*, *behe-* eta antzekoak konposizio osagaiak erabiltzen ez direlako. Tituluari dagokionez, *probintzia* gabe, *herrialde* hitza ezarri da, X. Kintanak proposaturik; L. Villasantek eta E. Knörrek bestelako iritzia agertu dute. Aldaketa horiekin eta beste batzuekin aho batez onartu da txostena.

### Nafarroako Euskararen Kontseilua

Nafarroako Gobernuaren idazkari teknikoa den José M<sup>a</sup> Abad jaunak euskaltzainburuari egindako gutunean Euskaltzaindiaren ordezkari bat eskatzen da, Euskararen Kontseilu sorberrirako. J.M. Satrustegi Nafarroako ordezkaria izendatu da aho batez.

### Eskuartekoak

E. Knörrek bere kezka agertu du UZEI elkarteak argitaratzen duen *Berba* aldizkariaren azken aleagatik. “Berrikusitako fitxak” titulupean *ambulatorio* eta *intsumisio* hitzak ageri dira, “forma hobetsi” gisa. Euskaltzaindiaren gainetik norbait edo zerbait den, hitzei eta hitz-formei buruz erabakitzen duenik, galdetu du Knörr jaunak. Bestalde, ale berean Hiztegi Batua aipatzen da, esan gabe Euskaltzaindiarena dela. M. Azkaratek, UZEIko J.A. Aduriz urgazlearen lana goretzi ondoren, aldizkari horretako arduradunekin mintzatuko dela esan du.

Ildo beretik hitz egin du Ibon Sarasolak, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak *erkidego* hitza dela eta M. Azkarateri eta berari zenbait funtzionariok igorri gutuna dela eta. Gutunean zalantzatan jartzen dute zenbait itzultzailek Euskaltzaindiaren erabakia. Sarasola jaunaren iritziz, onarrezina da jokabide hori, eta horrela erantzun beharko litzatekeela esan du.

M. Mercè Boronat Institut d’Estudis Catalans-eko kudeatzaileak J.L. Lizundia Euskaltzaindiko kudeatzaileari idatzitako gutuna irakurri da. Euskaltzainei dagokien tratamendua *jaun* / *andre txit argia* (*excelentísimo*, gaztelaniaz) da, Boronat andreak dioenez, Francisco López-Nieto-ren *Manual de protocolo* liburuaren arabera, halaber Erret Akademien eta haien pareko erakunde gehienen ohiturari jarraiki.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarra.